

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEAREN ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Zerbitzu Juridiko Administratiboa

Behin betiko onestea babes akustiko bereziko eremuen izendapena eta dagozkien eremuko planak

Hauxe erabaki zuen Vitoria-Gasteizko Udaleko Gobernu Batzarrak 2023ko martxoaren 17an egindako ohiko bilkuran:

“Espainiako 1978ko Konstituzioaren 45. artikulua ezartzen duenez, guztion eskubidea da gizabanakoaren garapenerako egoki den ingurumena izatea, eta guztion eginbeharra ere bada hori zaintzea. Orobat ezartzen du botere publikoek zainduko dutela baliabide natural guztien erabilera arrazionala, bizitza-kalitatea babestu eta hobetzeko, eta ingurumena defendatu eta berriztatzeke, eta xedapen hori hausten dutenei zehapen penalak edo administrazio-zehapenak ezarriko zaizkiola, baita eragindako kaltea konpontzeko betebeharra ere. Era berean, Konstituzioak norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea babesten du, besteak beste eragin akustikoa behar bezala arautuz zaindu daitekeena.

Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea da zarataren alorreko oinarritzko legea. Lege hori erregelamendu bidez garatu dute abenduaren 16ko 1513/2005 Errege Dekretuak, ingurumen-zarata ebaluatu eta kudeatzeari buruzkoak, eta urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuak, zonakatze akustikoari, kalitate-helburuei eta emisio akustikoei dagokienez. Soinu-ingurumenari dagokionez, hau ezartzen du Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legearen 25. artikulua: “kalitate akustikoko helburu aplikagarriak betetzen ez dituzten eremu akustikoak babes akustiko bereziko eremu izendatuko ditu administrazio publiko eskudunak, zarata-igorleek muga-balio aplikagarriak bete arren.”

Halaber, artikulua horrek xedatzen duenez, “administrazio publiko eskudunek eremuko plan espezifikoko landuko dituzte babes akustiko bereziko eremuetan ingurumen akustikoa progresiboki hobetzeko, aplikagarri zaizkien kalitate akustikoko helburuak lortu arte.” Bestalde, urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuak Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen du zonakatze akustiko, kalitate-helburu eta emisio akustikoei dagokienez 32. eta 33. artikuluetan adierazten dutenez, administrazio eskudunek gutxienez zarata-mapa ez-estrategikoak egingo dituzte kalitate akustikoaren helburuak betetzen ez direla egiaztatzen den eremu akustikoetarako, eta horiek abenduaren 16ko 1513/2005 Errege Dekretuaren IV. eranskinean ezarritako gutxieneko betekizunak bete beharko dituzte.

Euskadi Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 6. artikulua udalerriei esleitzen die eremu akustiko bat babes akustiko bereziko eremu edo egoera akustiko bereziko eremu izendatzeko eskumena, baita dagokion eremuko planaren barruan berariazko neurri zuzentzaileak landu, onetsi eta gauzatzeko eskumena ere.

Dekretu horren 47. artikulua hau xedatzen du: “Eremuko planaren helburua da teknikoki zein ekonomikoki egokiak diren neurriak gauzatea eremu akustikoen kanpoaldea babesteko, lehenik eta behin. Horretarako, kalitate akustikoko helburu-balioak betetzen direla begiratu da zarata iristen den leihodun eraikuntzen fatxada eta garaiera guztietan, bai eta eraiki gabeko lurzoruetako kanpoaldean ere, non lurretik 2 metrora iristen den zarata neurtuko den.

Kanpoaldean kalitate akustikoko helburu aplikagarriak bete ezin badira neurri osagarriak ezarriko dira, eraikinen barnealdean kalitate akustikoko helburuak betetzeko asmoz, gutxienez. Aurreko ataletan jasotakoa betetze aldera eremuko planean jasotako neurriak ezarri ondoren kalitate akustikoko helburuak bete gabe jarraitzen badute, eremu hori babes akustiko bereziko eremutzat joko du tokiko administrazioak; horren ondorioz, epe luzera kalitate akustikoa hobetzeko neurri osagarriak zehaztu beharko dira, kalitate akustikoko helburuak betetzera bideratutakoak, hain zuzen ere.”

Dekretuaren 45 b) artikulua jasotzen duenez, berriz, babes akustiko bereziko eremuen (BABEen) izendapen-agiriak eduki hauek izango ditu, gutxienez: eremuaren zedarriztapena, zarata-fokuen zerrenda eta haien ekarpen akustikoa, eta eremuko plana.

2022ko azaroaren 18an eman zion hasierako onespena Tokiko Gobernu Batzarrak babes akustiko bereziko eremuen (BABE) izendapenari eta dagozkien eremuko planei.

2022ko abenduaren 9an argitaratu zen hasierako onespene hori ALHAOn (141. zenbakia), eta jendaurrean jartzeko epea ireki, 2023ko urtarrilaren 9ra arte.

Jendaurreko informaziorako aldiak alegazio hauek aurkeztu ziren:

- 1. alegazioa: “Gasteiz Batu”-k 2023ko urtarrilaren 5ean aurkeztua.
- 2. alegazioa: N. G. C.k 2023ko urtarrilaren 9an aurkeztua.
- 3. alegazioa: I. M. R.k 2023ko urtarrilaren 9an aurkeztua.

“Eguzkizaleak” elkarteak alegazio bat aurkeztu zuen 2023ko urtarrilaren 23an, epez kanpo.

2023ko martxoaren 8an, Iraunkortasun, Klima eta Energia Zerbitzuko teknikariak irizpen hau eman zuen alegazioez:

“1. alegazioa, “Gasteiz Batu”-k aurkeztutakoa

Hau dio aurkeztutako alegazio-idazkiak:

- AHTa iristearen ondorioz, etorkizunean Salburua eta Zabalgana auzoetan zaratak eragin-dako afekzioak okerrera egingo duela aurreikusten da, gaur egun jada $L_n > 50$ dB(A) balioak gaintzen baitira. Hala ere, dokumentazioan ez da zehazten maila horiek pertsonen osasunean izango duten eragina, eta ez da neurri zuzentzailerik ezartzen, irtenbideen ardura proiektua sustatzen duten erakundeek gain uzten baitute, Vitoria-Gasteizko Udala barne.

- Udalak bertako herritarren osasuna zaintzen eta araudia betetzen dela bermatu behar du, eta, beraz, azterketa zehatza egin behar da, hirigintza-garapen koherentea barne hartuko duena.

- 2000. urtean ezarri zen hirigintza-garapenak egungo trenbidearen eraispena kontuan hartzen zuten baldintza batzuk aurreikusten zituen, baina 2 hamarkada geroago aldatu egin dira baldintzak, eta gaur egun eta etorkizunean osasun-arazoak izango diren eremuetan bizitzera kondenatu ditu bertako bizilagunak. Badirudi BABEak hirigintza-aldaketa hori partzialki zuzentzeko diseinatuta daudela, beste erakunde batzuen gain utzita udalak sortu duen eta konpondu ez duen arazoa konpontzeko betebeharra.

- Ez da egokia BABEak onestea, gaur egun kalitate akustikoko helburuak (KAH) betetzen ez dituzten lurzatietan pertsona gehiagok horren eragina izan ez dezaten hirigintza-garapen posibleen bidez.

Aurkeztutako alegazioan honako hau eskatzen dute:

- 1) Ez da egokia BABEak onartzea.
- 2) Azterlanaren deuseztasun-proposamena organo eskudunari helaraztea.

Aurrekoa kontuan hartuta, argibide hauek ematen dira:

Babes akustiko bereziko eremuak (BABE) kalitate akustikoko helburuak (KAH) betetzen ez direnean deklaratu behar dira, alde batera utzita haien deklarazioa beharrezkoa izatea eraikin berriei eraikitzeke lizentziak emateko, kanpoaldean KAHak betetzen ez diren kasu jakin batzuetan; nolana ere, KAHak barrualdean bete behar dira. Beraz, gaur egun eremu batean KAHak betetzen ez badira, eremu hori BABE izendatu behar da eta, horrenbestez, izendapena bat dator araudiarekin, eta beharrezkoa da ez-betetzeak antzeman diren kasuetan.

Aurrekoa adierazita, egindako eskaerei erantzungo zaie:

1. Kasu honetan aplikatu beharreko araudi akustikoak ezartzen duen bezala, trenbide-sarea Estatuko azpiegitura bat da, eta, beraz, konponbideak hartzeko ardura azpiegituraren esku-mena duen administrazioari dagokio, hala ezartzen baitute Zaratari buruzko 37/2003 Legeak, 1513/2005 Errege Dekretuak eta 1367/2007 Errege Dekretuak; kasu honetan, Garraio Ministerioari dagokio, zeinak kudeaketa ADIFen esku uzten baitu.

Udalak araudia betetzen dela zaindu behar du, eta, horretan oinarrituta, araudi akustikoa betetzeko behar diren neurri guztiak hartzeko eskatu behar dio kudeatzaileari.

Pertsonen osasunean dituen ondorioen ebaluazioari dagokionez, eremuko plan horietan KAHa betetzen den baloratu da, araudiak ez baitu balorazio gehigarriak aurreikusten. Hala ere, zarataren ondoriozko osasun-eraginei buruzko ebaluazio osatuagoak hartuko dira kontuan 2022ko Zarataren Mapa Estrategikotik eratorritako ekintza-plana egitean; 2024rako aurreikusi da hori.

2. Eremu-planak egitearen helburua definitutako BABEetan bizi diren herritarren osasuna hobetzea da; horregatik, zenbait irtenbide ezartzen dira eremu bakoitzaren egoera akustikoa hobetzeko.

3. BABEen deklarazioak udalerrian dagoen eragin akustikoa murriztu nahi du, eta horrek hala lurzoru finkatua nola finkatu gabea barne hartzen ditu. Agiria lantzeko unean aurreikusita zeuden aldaketak jaso dira etorkizuneko agertokian, eta horren gainean, neurri zuzentzaileak aztertu dira, zarataren eragina murrizteko. Eremu-planak ez ditu hirigintza-plangintzarekin lotutako alderdiak baloratzen, dagozkion prozeduretan azterlan akustikoak egitea sartu behar baita.

4. Esan bezala, BABEa beharrezkoa da BKEen ez-betetze bat detektatu delako, eta horrek ez dakar eragindako pertsonen kopurua handitzea; aitzitik, eremu-plan bat ezartzen du eremu horietan BKEak betetzeko bidean aurrera egiteko.

Beraz, babes akustiko bereziko eremuak izendatzeko behar den dokumentazioa bat dator aplikatu beharreko araudiarekin (213/2012 Dekretua), agertokiak eta proposatutako neurri zuzentzaileak barne; horrenbestez, alegazioa ezestea proposatzen da BABEak ez onestari dagokionez.

2. alegazioa, N. G. C.k aurkeztua

Hau dio aurkeztutako alegazio-idazkiak:

- BABE-3 eta BABE-6ko eremuko planek neurri zuzentzaileak barne hartzen dituztela kontuan hartuta, azterlana egiteko abiapuntuko datuek ahalik eta eguneratuenak izan behar dute. Hori dela eta, deigarria da 2017ko Zarataren Mapa Estrategikoan oinarrituta egotea, eremuko trafikoaren datuak aldatu egin baitira. Gainera, espero izatekoa litzateke funtsezko aldaketak izan diren eremuetan neurketak egitea datuak eguneratzeko; izan ere, datu zenbatetsiak erabili dira, nahiz eta kasu batzuetan neurketak lekuan bertan egin diren.

- Aurreikusitako ekintzek eta jasotako neurri zuzentzaileek gaueko aldia dute helburu, baina, aldi hori sentikorragoa izan arren, herritarrak egunez ere babestu behar dira lirarteke, zaratare-kiko gehiegizko esposizioak osasunean duen eraginaz ohartarazten duten azterlanak kontuan hartuta.

- Gurutzemendi haur eskola eta San Inazio ikastetxeko eskolaurrea ez dira eraikin sentikor gisa markatu. Eta, gainera, neurri zuzentzaileak gaueko aldiaren oinarritu direnez, ez dira kontuan hartu garapen-garaian dauden pertsonen osasunari eragiten dioten eguneko jarduketak.

- Eremu-planean adierazten da autobusak kenduta ibilgailu astunen zirkulazioa txikia dela, baina ez da adierazten zein den bolumen hori. Eremu horretatik zabortegira doazen ibilgailu astunen trafiko handia izan arren, eta hiriarteko autobusak ere igaro arren, ez da kontuan hartu egunean zehar pertsonen osasunean duten eragina, orduan baitago trafiko astun handiena.

Aurkeztutako alegazioan hau eskatzen dute:

- 1) Neurri zuzentzaileak ahalik eta datu eguneratuenetan oinarritu daitezten, eta funtsezko aldaketak daudenean neurketak lekuan bertan egin ditzaten.

- 2) Neurri zuzentzaileek eguneko aldia ere barne har dezaten.

- 3) Ikastetxeetan duen eragina aztertzea.

- 4) Hegoaldean trafiko astunaren bolumena zein den zehaztea, datua non hartu den eta txikia dela zehazteko erreferentzia zein den adieraziz.

- 5) Eguneko zein gaueko trafiko astunerako neurri espezifikoak ezartzea.

Aurrekoa kontuan hartuta, argibide hauek ematen dira:

1. Eremu plana 2020an egin zen, eta une hartan hirian eskuragarri zegoen oinarritzko agertokirik eguneratuenean oinarritu zen: 2017ko Zarataren Mapa Estrategikoa. Mapa hori bost urtean behin eguneratzen da, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera. Hala ere, eremuko plana 2030erako etorkizuneko agertoki batean planteatzen da, Mugikortasun Iraunkorren eta Espazio Publikoaren Planaren aurrerapen-dokumentuan urte horretarako ezartzen ziren trafiko-aurreikuspenen arabera definitua. Nolanahi ere, eremuko plana plan dinamikoa da, eta, hala badagokio, aldiaren aldiaren eguneratuko da, BABEaren izendapenak irauten duen bitartean.

Hurrengo ekintza-plana 2024an lantzea aurreikusi da, eta 2022ko Zarataren Mapa Estrategikotik eratorriko da. Planean hiriko zarataren bilakaeraren ebaluazioa sartuko da, zonako planak barne, datozen bost urteetan soinu-ingurunea hobetzeko prozesuarekin jarraitzeko beharrezkoak diren ekintzak ezartzeko.

2. Eremu-planak lehentasuna ematen dio eragina gaez murrizteari; izan ere, sentikortasun handieneko aldia izateaz gain, kalitate akustikoko helburuak (KAH) gehien urratzen diren aldia ere bada. Horrek ez du esan nahi eguneko gainerako aldietan neurri zuzentzaileak hartzen ez direnik. Nolanahi ere, trafikoaren gaineko neurri zuzentzaileak egun osoan zehar aplikatzeko beharra ebaluatuko da.

3. Eremuko planean, ekintza zuzentzaile gisa, BKEa gainditzeko den ikastetxeen gaineko eraginaren xehetasun-azterketa egitea jaso da. Beraz, plana garatzean, ikastetxeen azterketa zehatzagoa egin beharko da, eta bertan ikastetxeen azterketa espezifikoak sartu beharko da, besteak beste, Gurutzemendi haur eskolarena eta San Inazio ikastetxearena.

4. Kaleko trafiko astunari buruzko datu zehatzik ez dagoenez, trafiko astuna oro har bide motaren arabera aintzatetsi da, hiriko autobus-lineak alde batera utzita, zeinak bereiz tratatu baitira. Edonola ere, aipatu beharra dago ibilgailu astunen ehuneko hori bikoizteak edo hirukoizteak batez besteko zarata-mailak 1 dB(A)-tik behera handitzea dakarrela.

5. Esan bezala, eremuko plana plan dinamikoa da, eta, hala badagokio, aldiaren aldiaren eguneratuko da, BABEaren izendapenak irauten duen bitartean. 2022ko Zarataren Mapa Estrategikotik eratorriko hurrengo ekintza-plana 2024an lantzea aurreikusi da. Planean hiriko zarataren bilakaeraren ebaluazioa sartuko da, eta balorazioan, eremuko planetan egindako aurrerapenak eta eguneratze beharrak sartuko dira. Emaidza horien arabera aztertu beharko da eguneratzeak trafiko astunari buruzko datu zehatzagoak behar dituen edo neurri zuzentzaile gehigarriak behar diren.

Horrenbestez, aurkeztutako alegazioa ezestea proposatzen da. Hala ere, zonako planaren hurrengo berrikuspenean kontuan hartuko dira trafiko astunari buruzko iruzkinak, baita ikaste-txeetako zarataren analisiari buruzko iruzkinak ere, dagoeneko proposatu baita.

3. alegazioa, I. M. R.k aurkeztua

Hau dio aurkeztutako alegazio-idazkiak:

- BABE-3 eta BABE-6ko eremuko planek neurri zuzentzaileak barne hartzen dituztela kontuan hartuta, azterlana egiteko abiapuntuko datuek ahalik eta eguneratuenak izan behar dute. Hori dela eta, deigarria da 2017ko Zarataren Mapa Estrategikoan oinarrituta egotea, eremuko trafikoaren datuak aldatu egin baitira. Gainera, espero izatekoa litzateke funtsezko aldaketak izan diren eremuetan neurketak egitea datuak eguneratzeko; izan ere, datu zenbatetsiak erabili dira, nahiz eta kasu batzuetan neurketak lekuan bertan egin diren.

- Aurreikusitako ekintzek eta jasotako neurri zuzentzaileek gaueko aldia dute helburu, baina, aldi hori sentikorragoa izan arren, herritarrak egunez ere babestu beharko lirateke, zaratarekiko gehiegizko esposizioak osasunean duen eraginaz ohartarazten duten azterlanak kontuan hartuta.

- Gurutzemendi haur eskola eta San Inazio ikastetxeko eskolaurrea ez dira eraikin sentikor gisa markatu. Eta, gainera, neurri zuzentzaileak gaueko aldian oinarritu direnez, ez dira kontuan hartu garapen-garaian dauden pertsonen osasunari eragiten dion eguneko jarduketak.

- Eremu-planean adierazten da autobusak kenduta ibilgailu astunen zirkulazioa txikia dela, baina ez da adierazten zein den bolumen hori. Eremu horretatik zabortegira doazen ibilgailu astunen trafiko handia izan arren, eta hiriarteko autobusak ere igaro arren, ez da kontuan hartu egunean zehar pertsonen osasunean duten eragina, orduan baitago trafiko astun handiena.

Aurkeztutako alegazioan honako hau eskatzen dute:

- 1) Neurri zuzentzaileak ahalik eta datu eguneratuenetan oinarritu daitezen, eta funtsezko aldaketak daudenean neurketak lekuan bertan egin.

- 2) Neurri zuzentzaileek eguneko aldia ere barne har dezaten.

- 3) Ikastetxeetan duen eragina aztertzea.

- 4) Hegoaldean trafiko astunaren bolumena zein den zehaztea, datua non hartu den eta txikia dela zehazteko erreferentzia zein den adieraziz.

- 5) Eguneko zein gaueko trafiko astunerako neurri espezifikoak ezartzea.

Aurrekoa kontuan hartuta, argibide hauek ematen dira:

1. Eremu plana 2020an egin zen, eta une hartan hirian eskuragarri zegoen oinarrizko agertoki eguneratuenean oinarritu zen: 2017ko Zarataren Mapa Estrategikoa. Mapa hori bost urtean behin eguneratzen da, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera. Hala ere, eremuko plana 2030erako etorkizuneko agertoki batean planteatzen da, Mugikortasun Iraunkorren eta Espazio Publikoaren Planaren aurrerapen-dokumentuan urte horretarako ezartzen ziren trafiko-aurreikuspenen arabera definitua. Nolanahi ere, eremuko plana plan dinamikoa da, eta, hala badagokio, aldian-aldian eguneratuko da, BABEaren deklarazioak irauten duen bitartean.

Hurrengo ekintza-plana 2024an lantzea aurreikusi da, eta 2022ko Zarataren Mapa Estrategikotik eratorriko da. Planean hiriko zarataren bilakaeraren ebaluazioa sartuko da, zonako planak barne, datozen bost urteetan soinu-ingurunea hobetzeko prozesuarekin jarraitzeko beharrezkoak diren ekintzak ezartzeko.

2. Eremu-planak lehentasuna ematen dio eragina gaez murrizteari; izan ere, sentikortasun handieneko aldia izateaz gain, kalitate akustikoko helburuak (KAH) gehien urratzen diren aldia ere bada. Horrek ez du esan nahi eguneko gainerako aldietan neurri zuzentzaileak hartzen ez direnik. Nolanahi ere, trafikoaren gaineko neurri zuzentzaileak egun osoan zehar aplikatzeko beharra ebaluatuko da.

3. Eremuko planean, ekintza zuzentzaile gisa, BKEa gainditzen den ikastetxeen gaineko eraginaren xehetasun-azterketa egitea jaso da. Beraz, plana garatzean, ikastetxeen azterketa zehatzagoa egin beharko da, eta bertan ikastetxeen azterketa espezifikoak sartu beharko da, besteak beste, Gurutzemendi haur eskolarena eta San Inazio ikastetxearena.

4. Kaleko trafiko astunari buruzko datu zehatzik ez dagoenez, trafiko astuna oro har bide motaren arabera aintzatetsi da, hiriko autobus-lineak alde batera utzita, zeinak bereiz tratatu baitira. Edonola ere, aipatu beharra dago ibilgailu astunen ehuneko hori bikoizteak edo hirukoizteak batez besteko zarata-mailak 1 dB(A)-tik behera handitzea dakarrela.

5. Esan bezala, eremuko plana plan dinamikoa da, eta, hala badagokio, aldian-aldian eguneratuko da, BABEaren izendapenak irauten duen bitartean. 2022ko Zarataren Mapa Estrategikotik eratorriko hurrengo ekintza-plana 2024an lantzea aurreikusi da. Planean hiriko zarataren bilakeararen ebaluazioa sartuko da, eta balorazioan, eremuko planetan egindako aurrerapenak eta eguneratze beharrak sartuko dira. Emaizta horien arabera aztertu beharko da eguneratzeak trafiko astunari buruzko datu zehatzagoak behar dituen edo neurri zuzentzaile gehigarriak behar diren.

Horrenbestez, aurkeztutako alegazioa ezestea proposatzen da. Hala ere, zonako planaren hurrengo berrikuspenean kontuan hartuko dira trafiko astunari buruzko iruzkinak, baita ikastetxeetako zarataren analisiari buruzko iruzkinak ere, dagoeneko proposatu baita.

4. alegazioa, epez kanpokoa, "Eguzkizaleak" elkarteak aurkeztua

Hau dio aurkeztutako alegazio-idazkiak:

- AHTa iristearen ondorioz, etorkizunean Salburua eta Zabalgana auzoetan zaratak eragindako afekzioak okerrera egingo duela aurreikusten da, gaur egun jada $L_n > 50$ dB (A) balioak gainditzen baitira. Hala ere, dokumentazioan ez da zehazten maila horiek pertsonen osasunean izango duten eragina, eta ez da neurri zuzentzaileak ezartzen, irtenbideen arduraren proiektua sustatzen duten erakundeek gain uzten baitute, Vitoria-Gasteizko Udala barne.

- Udalak bertako herritarren osasuna zaintzen eta araudia betetzen dela bermatu behar du, eta, beraz, azterketa zehatza egin behar da, hirigintza-garapen koherentea barne hartuko duena. Gainera, 2000. urtean ezarri zen hirigintza-garapenak egungo bidea desegitea kontuan hartzen zuten baldintza batzuk aurreikusten zituen, baina 2 hamarkada geroago aldatu egin dira baldintzak, eta gaur egun eta etorkizunean osasun-arazoak izango diren eremuetan bizitzera kondenatu ditu bertako bizilagunak. Badirudi BABEak hirigintza-aldaketa hori partzialki zuzentzeko diseinatuta daudela, beste erakunde batzuen gain utzita udalak sortu duen eta konpondu ez duen arazoa konpontzeko betebeharra.

- Ez da egokia BABEak onestea, gaur egun kalitate akustikoko helburuak (KAH) betetzen ez dituzten lurzatietan pertsona gehiagok horren eragina izan ez dezaten hirigintza-garapen posibleen bidez.

Aurkeztutako alegazioan honako hau eskatzen dute:

1) Ez da egokia BABEak onartzea.

2) Azterlanaren deuseztasun-proposamena organo eskudunari helaraztea.

3) Dosierrean alderdi interesduntzat har ditzaten eta horiekin lotuta egiten diren jarduketak jakinaraz diezazkieten, eta udalerrri osoko kontzejuak, pertsonak eta kolektiboak alderdi interesduntzat har ditzaten BABEak onesteko ala ez.

Aurrekoa kontuan hartuta, argibide hauek ematen dira:

Babes akustiko bereziko eremuak (BABE) kalitate akustikoko helburuak (KAH) betetzen ez direnean deklaratu behar dira, alde batera utzita haien deklarazioa beharrezkoa izatea eraikin berriei eraikitzeko lizentziak emateko, kanpoaldean KAHak betetzen ez diren kasu jakin batzuetan; nolahi ere, KAHak barrualdean bete beharko dira. Beraz, gaur egun eremu batean KAHak betetzen ez badira, eremu hori BABE izendatu behar da eta, horrenbestez, izendapena bat dator araudiarekin, eta beharrezkoa da ez-betetzeak antzeman diren kasuetan.

Aurrekoa adierazita, egindako eskaerei erantzungo zaie:

1. Kasu honetan aplikatu beharreko araudi akustikoak ezartzen duen bezala, trenbide-sarea Estatuko azpiegitura bat da, eta, beraz, konponbideak hartzeko ardua azpiegituraren esku-mena duen administrazioari dagokio, hala ezartzen baitute Zaratari buruzko 37/2003 Legeak, 1513/2005 Errege Dekretuak eta 1367/2007 Errege Dekretuak; kasu honetan, Garraio Ministerioari dagokio, zeinak kudeaketa ADIFen esku uzten baitu.

Udalak araudia betetzen dela zaindu behar du, eta, horretan oinarrituta, araudi akustikoa betetzeko behar diren neurri guztiak hartzeko eskatu behar dio kudeatzaileari.

Pertsonen osasunean dituen ondorioen ebaluazioari dagokionez, eremuko plan horietan KAHa betetzen den baloratu da, araudiak ez baitu balorazio gehigarriak aurreikusten. Hala ere, zarataren ondoriozko osasun-eraginei buruzko ebaluazio osatuagoak hartuko dira kontuan 2022ko Zarataren Mapa Estrategikotik eratorritako ekintza-plana egitean; 2024rako aurreikusi da hori.

2. Eremu-planak egitearen helburua definitutako BABEetan bizi diren herritarren osasuna hobetzea da; horregatik, zenbait irtenbide ezartzen dira eremu bakoitzaren egoera akustikoa hobetzeko.

Bestetik, BABEen deklarazioak udalerrian dagoen eragin akustikoa murriztu nahi du, eta horrek hala lurzoru finkatua nola finkatu gabea barne hartzen ditu. Agiria lantzeko unean aurreikusi zezuden aldaketak jaso dira etorkizuneko agertokian, eta horren gainean, neurri zuzentzaileak aztertu dira, zarataren eragina murrizteko. Eremu-planak ez ditu hirigintza-plangintzarekin lotutako alderdiak baloratzen, dagozkion prozeduretan azterlan akustikoak egitea sartu behar baita.

3. Esan bezala, BABEa beharrezkoa da, BKEen ez-betetze bat detektatu delako, eta horrek ez dakar eragindako pertsonen kopurua handitzea; aitzitik, eremu-plan bat ezartzen du eremu horietan BKEak betetzeko bidean aurrera egiteko.

Egindako eskaerei dagokienez:

- Babes akustiko bereziko eremuak izendatzeko behar den dokumentazioa bat dator aplikatu beharreko araudiarekin (213/2012 Dekretua), agertokiak eta proposatutako neurri zuzentzaileak barne. Horrenbestez, ez da bidezkoa BABEak ez onartzea.

- Babes akustiko bereziko eremu horiek onesteko 20 eguneko informazio publikoko prozesua egin zen, zeinean interesa zuen edonork egoki iritzitako iruzkinak edo alegazioak egitea baitzuen, eta herritarrek parte hartzeko prozesu bat ere ekarri zuen, Vitoria-Gasteizko auzoguneen bitartez. Prozesu horretan, zenbait bilera egin ziren, eta herritarrek egokitzat jotako ekarpenak egin zituzten; beraz, interesdunak kontuan hartu dira.

Horrenbestez, aurkeztutako alegazioa ezestea proposatzen da. Aurkeztutako alegazioa epez kanpo egon arren, alderdi interesduntzat hartuko da eta dossier honi dagozkion komunikazioak egingo dira.”

213/2012 Dekretuaren 8. artikulua ezartzen duenez, “administrazio publikoek une oro bermatuko dituzte hots-kutsadurari buruzko informazioa eskuratzeko eta parte hartzeko herritarren eskubideak, aplikazio-araudian aurreikusitako moduan”. Eta gehitzen du: “dekretu honen arabera plangintza eta kudeaketa akustikoa ahal bezain beste barreiatuko eta jakinaraziko da, herritar guztiak jaso eta uler dezaten”.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 126.1 artikulua ezartzen duenez, tokiko gobernu batzarrak, alkatearen lehendakaritzapean, alkateari dagokion zuzendaritza politikoan laguntzen dio kide anitzeko organo moduan, eta lege horretako 127. artikuluan aipatutako eginkizun betearazle eta administratiboak betetzen ditu. Beraz, organo hori da babes akustiko bereziko eremuen eta dagozkien eremu-planen izendapena behin betiko onartzeko eskumena duena.

Horrenbestez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 25.2.b) 26.1.d) artikuluek hiri-ingurumenaren alorrean ematen dizkioten eskumenez baliatuz, eta 2019ko ekainaren 21eko alkate-dekretuak bere gain utzitako aginpidea dela medio, Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko zinegotzi ordezkariak erabaki proposamen hau egiten dio Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

Lehenena. Alegazio hauek ezestea, goian adierazitako txostenean oinarrituta:

- 1. alegazioa: "Gasteiz Batu"-k 2023ko urtarrilaren 5ean aurkeztua.
- 2. alegazioa: N. G. C.k 2023ko urtarrilaren 9an aurkeztua.
- 3. alegazioa: I. M. R.k 2023ko urtarrilaren 9an aurkeztua.
- 4. alegazioa: "Eguzkizaleak" elkarteak epez kanpo aurkeztua, 2023ko urtarrilaren 23an.

Bigarrena. Behin betiko onespina ematea jarraian adierazten diren eremuak babes akustiko bereziko eremu izendatzeari, esparrua mugatuta eta soinu-fokuak eta horien kontribuzio akustikoa identifikatuta, akordioaren hirugarren puntuan aipatutako eremu-planetan ezarritakoaren arabera:

1. Babes akustiko bereziko eremuak: BABE-1 – Erdi Aroko hirigunea.
2. Babes akustiko bereziko eremuak: BABE-2 – Erdialdeko eraztuna.
3. Babes akustiko bereziko eremuak: BABE-3 – Barneko eraztuna.
4. Babes akustiko bereziko eremuak: BABE-4 – Kanpoko eraztuna (iparraldea).
5. Babes akustiko bereziko eremuak: BABE-5 – Kanpoko eraztuna (mendebaldea).
6. Babes akustiko bereziko eremuak: BABE-6 – Kanpoko eraztuna (hegoaldea).
7. Babes akustiko bereziko eremuak: BABE-7 – Kanpoko eraztuna (ekialdea).
8. Babes akustiko bereziko eremuak: BABE-8 – Menpeko toki-erakundeak.

Hirugarrena. Behin betiko onespina ematea eremu horien eremu-planen (eranskinean jaso dira), zeinek eremu horietan aplikagarriak diren neurriak hartzen baitituzte barne:

1. Babes akustiko bereziko eremuaren eremu-plana: BABE-1 – Erdi Aroko hirigunea.
2. Babes akustiko bereziko eremuaren eremu-plana: BABE-2 – Erdialdeko eraztuna.
3. Babes akustiko bereziko eremuaren eremu-plana: BABE-3 – Barneko eraztuna.
4. Babes akustiko bereziko eremuaren eremu-plana: BABE-4 – Kanpoko eraztuna (iparraldea).
5. Babes akustiko bereziko eremuaren eremu-plana: BABE-5 – Kanpoko eraztuna (mendebaldea).
6. Babes akustiko bereziko eremuaren eremu-plana: BABE-6 – Kanpoko eraztuna (hegoaldea).
7. Babes akustiko bereziko eremuaren eremu-plana: BABE-7 – Kanpoko eraztuna (ekialdea).
8. Babes akustiko bereziko eremuaren eremu-plana: BABE-8 – Menpeko toki-erakundeak.

Laugarrena. Erabaki hau alegazio-egileei jakinaraztea eta ALHAOn argitaratzea.

Bosgarrena. Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du, eta interesdunek errekurtsio hauek jar ditzakete:

a) Aukeran, berraztertze errekurtsioa aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, Hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori espresuki edo ustez ebatzi arte. Ondoren, ebazpen espresua ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu ahalko da, bi hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, edozein unetan aurkeztu ahalko da, araudi espezifikokoaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

b) Zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren bihar-ramunetik.

Dena den, interesdunek egoki irizitako beste edozein errekurtso aurkez dezakete, nahi badute, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik.”

Herritarrek www.vitoria-gasteiz.org udal webgunean dituzte eskuragarri eremuko planak, esteka hauetan:

Gaztelaniaz:

<https://v-g.eus/ZPAE>.

Euskaraz:

<https://v-g.eus/BABE>.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko martxoaren 27an

Zerbitzu Juridiko Administrazio burua
EUSEBIO-MARTÍN MACHO PÉREZ